

Montgomery Clift Peter Blakeren begietatik



Marco Livingstone

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao
© Peter Blake, VEGAP, Bilbao, 2015

Argazki-kredituak

- © Alan Cristea Gallery, London: 10. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1. ir.
- © Galleria Civica di Modena: 2. ir.
- © Kevin McCarthy: 8. ir.
- © Mr. and Ms. Terry Blake: 4. ir.
- © Museum Ludwig, Köln: 3. ir.
- © Tate, London, 2005: 5. and 6. ir.
- © Waddington Galleries LTD, London: 7. and 9. ir.

Argitalpena:

B'05 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 1. zenb., 2006, 111.-138. or.

Babeslea:



Montgomery Clift bikia izan zen [1. ir.], Peter Blake¹ 1981 eta 1983 artean pintatutako koadroa, artista ingeles honen helduaroko obrarik iradokitzaile eta misterioetsuenetakoa da. 60 urte egin baino urtebete lehenago eta bere lehenengo emaztearengandik (Jann Haworth eskultore estatubatuarra) banatu eta denbora gutxira egin zuen, eta giro gazi-gozoa eskaintzen du, alde batetik, Blakek bizitza modu positiboan berregin nahi izan zuelako –«ondo bizitzea da mendekurik onena»² dioen atsotitzak bultzatuta–, eta, bestetik, bere egoera berriaren errealitatea tristeza zelako; izan ere, berriro ere bakarrik zegoen, hamasei urtez emaztearekin bizi ostean. Pantailako idolo iparramerikarra, koadroaren erdian bere baitarako dantzan dagoena, artistaren (ia segurtasun osoz, modu inkontzientean) *alter ego* antzekoa izan zen, bere bizitzan oso garrantzitsua zen une batean.

1979an, Blake eta emaztea banatzen ari ziren sasoiaren eta margolaria, hamar bat urtez Wiltshire konderriko inguru lasaian bizi ondoren, Londresera bueltatzeko puntuan zegoenean, Los Angelesera bidaiatzeko iradokizuna egin zioten. Aurretik, behin baino ez zen egon Los Angelesen, hamasei urte lehenago. Peter Goulds galerista ingelesak egin zion gonbidapena, *This Knot of Life* izeneko pintura britainiarreko erakusketa kolektiboan parte har zezan. Erakusketa hura inauguratu berria zen L.A. Louver Galleryn egingo zen, Venicen, Kalifornian³. Blake alaba txiki biren aita zen, eta ez zuen askorik bidaiatzen inaugurazioetara. Hasieran, beraz, uko egin zion eskaintzari. Gero, hobeto pentsatuta, konturatu zen une haietan ezerk ezin ziola bidaiatzea eragotzi. Blakeren laguna zen Howard Hodgkin margolaria ere garai hartan banatu zen, eta, bera ere gonbidatuta zegoenez, zalantza batzuen ostean, erabaki zuten batera bidaiatzea Kaliforniara, Petersburg Pressen arduraduna zen Paul Cornwall-Jones editorearekin batera. Bide batez, David Hockney aspaldiko laguna bisitatuko zuten, aurreko urtean bueltatu baitzen Los Angelesera. «Howardek aurkikuntza-bidaia antzeko bati ekin zion, homosexuala zen ala ez jakiteko. Ni ere neure aurkinuntza-bidaia nengoen,

1 Eskerrik beroena eman nahi diot Peter Blakeri, artikulu hau prestatzeko eman duen laguntzagatik. Hemen jasotako Blakeren hitz guztiak, eta bildutako informazioaren zati handi bat, autorearekin Londresen egindako elkarrizketa batetik dago aterata. Elkarrizketa artistaren estudioan izan zen, 2004ko abuztuaren 13an. Koadroa 2002an eskuratu zuen Bilboko Arte Eder Museoak. Inb. zenb. 02/252.

2 Emaztearengandik banatu zen garaian, Blakek Calvin Tomkinsen *Living Well is the Best Revenge* liburua irakurri zuen (New York : Viking Press, 1971). Bertan, joandako mendeko hogeiko hamarkadako Paris agertzen da. Gerald Murphy margolari estatubatuarren, haren emazte Sararen eta F. Scott Fitzgerald nobelagilearen historian oinarritutako liburua da. Blakek hauxe esan zuen gure elkarrizketan zehar: «Kontsigna pertsonal gisa hartu nuen. Oraindik ere, balio dit».

3 *This Knot of Life: an exhibition of current British painting and drawing presented in two parts* 1979ko azarora eta abenduaren artean egin zen.



1. Peter Blake
Montgomery Clift bikia izan zen, 1981-1983
Olioa mihisean. 88,9 x 66 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 02/252



2. Peter Blake
Kim Novak harresia, 1959
 Collage eta esmaltea egur-kartoiari. 76,2 x 48,3 cm
 Bilduma partikularra

bizitza berregiteko asmoarekin». Eta Hockney, berriz, bere hasierako obrarik oparo eta eraginkorrenak (1960ko hamarkadaren erdialdean) pintatzeko erabili zuen hiria emozioz beterik ari zen berraurkitzen. Montgomery Cliften (1920-1966) erretratua Blakeren bizipen pertsonal horien testuinguruan koka daiteke, baina artistaren aurreko obra ere hartu behar da kontuan.

1932an jaio zen, langile klaseko familia batean, Londresko hego-ekialdean dagoen Kent konderriko Dartford herrian. Blake arin interesatu zen entretenimendu herrikoi mota guztiekin, esate baterako, zinema, zirku, borroka libre, eta musikarekin, jazzarekin bereziki. Gustu horiek modu naturalean agertu ziren bere artean, 20 urteak beteta zituela, graduondoko ikasketak egiten ari zenean Londresko Royal College of Art delakoan, 1953 eta 1956 artean. Nagusiagoak ziren beste artista batzuek, esate baterako, Eduardo Paolozzi eskultore eskoziarrak (1924-2005) eta Richard Hamilton margolari ingelesak (1922an jaioa) pop artearen oinarri teoriakoak finkatzen zituzten garai berean (Londresko The Independent Group izenekoan parte hartuz), Blake bere lehenengo proto-pop koadroak ari zen sortzen, kultura herrikoian sartu izanari emandako erantzun zuzen, zintzo eta helburu handirik gabekoan. Hasierako koadro horietako batzuk guztiz autobiografikoak ziren. Horien artean zegoen *Umeak komikiak irakurtzen*, 1954koa, zeinetan bere burua erretratatu baitzuen umetan, arreba txikiarekin batera. Hasierako lan horiek aurrekaria ezarri zuten geroagoko lan laudatuetarako, esate baterako, 1961eko *Autorretratu insigniekin* lanerako, zeinetan bere burua erretratatu baitzuen, metalezko txapekin eta eskuan Elvis Presleyren fan klubeko aldizkari bat zuela. Zirkuko artista imajinarioei buruz egin zituen koadroetan (adibidez, *Loelia, munduko emakumerik tatuatuena*, 1955koa) edo fikziozko borrokalarien koadroetan (1961-1963ko *Adolfo Kaiser baroia* lanetik hasita), Blakek fan totalaren papera hartu zuen. Hori argiago ikusten da benetan pop estilokoak ziren bere lehenengo koadroetan (1959tik aurrera egindakoak), non zine-izarren argazkiak (esate baterako, Kim Novak [2. ir.] edo Tuesday Weld) eta musikari eta kantarien irudiak (Frank Sinatra edo Everly Brothers, adibidez) ate edo horma itxurako kartoi-egurrezko paneletan itsatsi eta oinarritzko koloreetan pintatzen zituen. Sasoi hartan, elkar elikatzen duten ikono ospetsu eta fan itsuaren nozioak gai garrantzitsu legez hasi ziren nabarmentzen Blakeren obran.



3. Peter Blake
Umeak ABC zinemako goizeko emanaldietan, 1955
 Olioa egur-kartoiari. 76 x 49 cm
 Museum Ludwig, Kolonia

Blake lehenengo film soinu-duna sortu baino apur bat geroago jaio zen. Zinemarekiko zaletasuna, batez ere zirkulazio nagusiko pelikula iparramerikarrekikoa, oso umea zela hasi zitzaion, amak ia egunero zinemara eramaten zuen garaian⁴. Zinemaren inguruko lehenengo oroitzapenak hiru edo lau urte zituenekoak ziren, lehen aldiz ikusi zituenean Shirley Templeren pelikulak, soinu-dun zinema heldu eta hamarkada bat baino gutxiagora. Geroago, Bigarren Mundu Gerraren amaieran, 1945ean hain zuzen, Worcesterrera ebakuatu zutenean, Shirley arrebarekin batera (urte bi eta erdi gazteagoa) umeentzako «ABC Minors» zinema saioetara joaten hasi zen, larunbat goizetan. 1955eko *Umeak ABC zinemako goizeko emanaldietan* [3. ir.] koadroa goiz zatatatu haizetako oroitzapen epel eta nostalgiaz bete da, eta, bertan, Terry anai eta lehengusu bat agertzen dira. 1946an, hamalau urterekin, Blake etxean zegoen berriro; ikasketak utzi eta herriko arte-eskola batera joaten zen, Gravesend Technical College and School of Art delakora. Amarekin zinemara joaten jarraituko zuen, baina orain, batzuetan, arratsaldean joaten zen, apur bat segmentatutako bizitzaren egunerokotasunaren parte gisa. Bizitza horren barruan zeuden arte eskolan ematen zuen denbora, inguru-etako jazz-klubetara egiten zituen bisitak (normalean bakarrik) eta borroka libreko konbanteetara joaten zenekoa.

Hezkuntza artistikoa hasi zuenean, irakasleek gomendatu zioten artista grafikoa izateko trebakuntza jasotzeko —nahiz eta bere asmoa margolaria izatea zen—, uste zutelako horrela errazago aterako zuela aurrera bizi-modua. Blakek plaza bat eskatu zuen Royal Collegeko arte grafikoen sailean; pintura sailean onartu zuten, baina, sasoi hartan, berdin-berdin zegoen eroso artista sortzailearen paperean zein artista grafikoen edo ilustratzailearen paperean. Bere belaunaldian, publizitate lanak egitea onartu zuten artista urrietako bat da

⁴ «Oso ama gaztea izan zen; hogeitau urte ozta-ozta izango nituen jaio nintzenezan [...]. Pentsatzen dut jaio nintzen egunetik-edo eramango ninduela [...]. Nagusi egin nintzenezan ere, amarekin zinemara joaten jarraitu nuen». Bisita horiek 1951ra arte iraun zuten gutxi gorabehera. Urte hartan, Blake Royal Air Forcen sartu zen, urte biko soldaduska egiteko —garai hartan, «zerbitzu nazionala» deitzen zitzaion—.



4. Peter Blake
Jean Harlow, 1964
 Akrilikoa egur-kartoian. 44,5 x 36,8 cm
 Mr and Mrs Terry Blake Bilduma

—egin zuen lanik ospetsuena Beatles taldearen diskorik ezagunenaren azala izan zen: *Sgt. Pepper's Lonely Hearts Club Band*, Jann Haworthekin batera diseinatutakoa 1967an—, eta, gainera, artista gisa egin zuen lanaren parte integral eta elementu baliagarri gisa ikusi zuen publizitatea⁵. Bere karreraren hasieran *The Sunday Times Magazine* aldizkarirako (Britainia Handiko⁶ egunkari nazional batek argitaratutako lehenengo koloretako astekaria) egindako enkargu garrantzitsu bik harremana dute Montgomery Cliften inguruan egin zuen erretratuarekin eta garai hartan hasitako Los Angeles hiriari buruzko mihise birekin. Lehenengo enkargua, 1963koa, munduko edozein lekutako marrazki serie baten parte izango zen, eta Blakek aukera aprobe-txatu zuen lehenengo bisita egiteko Los Angelesera, Kaliforniara⁷; beste enkargua Hollywoodeko Jean Harlow jainkosaren erretratua pintatzea izan zen [4. ir.], eta, ondorioz, emaitza ederreko erretratua lortu zuen, famatuei buruz gerora egingo zituen koadroen aurrerapen gisa⁸.

Jean Harlowen erretratua 1964ko azaroaren 22ko *The Sunday Times Magazine* aldizkariko azala izan zen, eta aurrekari argia da *Montgomery Clift bikia izan zen* lanerako. Izan ere, argazki batean dago oinarrituta, baina Blakek eskuz pintatu zuen osorik, artistak berak, naturalistatzat baino, «akademikoagotzat» daukan estiloarekin. Argi eta garbi, publizitateko argazki ofizial batean dago oinarrituta, izarraren autografoa bar-

5 Ikus Usherwood 1986 eta Londres 2003.

6 Blakek aldizkariarekin zuen lotura (hasieran *The Sunday Times Colour Section* izenarekin ezagututakoa) lehenengo zenbakitik zehaztu zen, hau da, 1962ko otsailaren 4tik. Zenbaki hartan, John Russellek Peter Blakeri buruz idatzitako artikulu bat zetorren: «Pioneer of Pop Art» (16.-17. or.).

7 «Peter Blake in Hollywood» lanean agertu ziren, *The Sunday Times Magazine*, 1964ko azaroaren 15a, 27.-31. or. «*The Sunday Times* aldizkariari gonbita egin zigun hiru artistari munduko edozein lekutara bidaiatzeko; 300 libreak ordainsari finko batzuk egongo ziren eta norakoa aukeratzeko libreak ginen. Baina dirua hegazkin-txartelean gastatuz gero, diru gutxiago jasotzen zenuen. Ni hor nengoen, eta, gero, Philip Sutton, Tahitira joan zena; David [Hockney] Egiptora joan zen, eta marrazki egiptoar zoragarri haiek egin zituen [...]. Jann eta ni urte hartantxe ezkondu ginen. Berak gauza piloan utzi zituen amaitu gabe Los Angelesen, eta nik gogoa neukan hara joateko». Blakek onartzen du Kaliforniako hegoaldeko hiri handi hark sortu zion grina zela eta, beharbada, Hockney bera ere animatu egin zela Los Angelesera bidaiatzen, 1963ko abenduaren amaieran. Azkenean, Hockney zenbait urtez geratu zen han bizitzen eta, hainbat bider bueltatu ostean, 1978an erabaki zuen hiri hartan jarriko zela bizitzen, modu iraunkorrean edo.

8 Peter Blakeren erakusketa indibidualeko katalogoaren oharretan (Robert Fraserren galerian egin zen erakusketa hura, Londresen, 1965ean), Robert Melville arte kritikariak hauxe idatzi zuen aipatutako obrari buruz: «Enkarguz egindako erretratuaren agertzen diren pertsonak, normalean, ez ziren erakargarriak Blakerentzat artearen aldetik; baina, hala ere, ilehori itzel honen jarraitzaile bihurtu da, eta, nolabait esateko, atzeraeraginezko jarraitzailea da, haren erretratua pintatzearen ondorio zuzenez».

ne dela⁹. Garai hartan bertan sortu zituen Blakek formatu handiko hiru koadro, Hollywoodekin erlazionatu-tako gaietaz buruz. Oso epe luzeko proiektuak izan ziren, eta horien artean zegoen *David Hockneyren erretratu, espainiar estiloko barrualde hollywoodiar batean* [5. ir.]. Esan ohi da koadro hori —ia lau hamarkadaz aldizka-aldizka egin zuen lan koadro horretan—¹⁰ 1965ean hasi zuela, baina margolaria ziur dago 1964an hasi zela koadro horrekin lanean:

Hilabete batzuek, estudio bat alokatu nuen Chiswicken¹¹. Benetako estudio bat neukan lehen aldian zen, eta hiru mihise erosi nituen. Mihise horietako bik sei oin bider bost zituzten, eta bestea, berriz, sei oin garai eta hamar oin luze zen. Handik sortu zen koadroetako bat *David Hockneyren erretratu, espainiar estiloko barrualde hollywoodiar batean* izan zen. Bigarrena, *Tarzanen familia, Roxy Zineman*. Eta hirugarrena, [...] bataila bat izan zen. Guztiz modatik kanpoko zerbait pintatu nahi nuen; zenbat eta gehiago, hobeto [...]. Markoak erabiltzeko erabakia hartu nuenean —hirurogeiko hamarkadan modatik guztiz kanpora zegoen hori, inork ez baitzituen markoak erabiltzen—, modatik urrundutako koadro bat pintatu nahi nuen, puntu absurdu batera heldu arte. Beraz, bataila baten eszena pintatu nuen. Uste dut *Bataila* deitzen zela, besterik gabe. Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka bat zen. Garatu nuen punturaino, «txarrak» urrezko maskara eta kasketak zeramatzaten borrokalariak ziren, eta «onak», berriz, fotogramak ziren. Douglas Fairbanks Jr. zegoen, ezpatarekin, urre koloreko txanoa zeraman gizon batekin borrokan. Tony Curtis gorago zegoen, eszenatokia balkoi batetik ikusten ariko balitz bezala. Azken lerroan Shirley Temple, W. C. Fields, Bowery Boys eta Abbott eta Costello zeuden. Lou Costello zenbait pertsonari buruan kolpeka ari da. Hollywoodeko irudi asko erabili nituen.

Koadro horiek eta Hollywoodeko beste batzuk erreferentzia puntua izan ziren *Montgomery Clift bikia izan zen lanarentzat* eta urte bi haietan egindako beste bi mihiserentzat: «*Topaketa*» edo «*Izan dezazula egun on bat, Hockney jauna*» [6. ir.] eta *Oroitutako une bat Venicen, Kalifornia* [7. ir.]. Blake gehiago interesatu zen Montgomery Clift pertsonarekin, aktorearekin baino¹², eta, behin batean, harekin identifikatu zen, biek bizi izan zituztelako trafiko istripuak eta, istripu horien ondorioz, biek geratu zitzaizelako aurpegia apur bat itxuragabeketa: 1949ko udan, Blakek oso istripu larria izan zuen bizikletarekin. Horrek areagotu egin zuen bere lotsa, eta, geroago, bizarra utzi zuen, orbanak ezkutatzeko¹³. Clift, berriz, aktore karreraren gailurrean, ia hil egin zen 1956ko maiatzean izandako trafiko istripu batean, mozkortuta ari zenean gidatzen. Istripu haren ondorioz, bere aurpegi ederraren ezker aldeko zati bat betiko geratu zitzaion paralizatuta¹⁴. Bidaian irakurtzeko, Blakek Cliften biografia bat eraman zuen, Patricia Bosworthek idatzitakoa. Gehien interesatu zitzaion atala aktorearen sexualitate nahasi samarra lantzen zuena zen¹⁵. Heterosexuala bazen ere, Blakeri beti interesatu zitzaion homosexualtasuna, bere obretarako gai bezala. Gai hori argi ikusten da, esate baterako, borrokalarien inguruko bere koadro askotan. Gero, Hodgkinson eskutik eta, batez ere, Hockneyrenetik —hogeitaka urte

9 «Uste dut *Sunday Times* izan zela argazkiak eman zituena, eta, azkenean, zuri-beltzeko argazki bat izan zen. Koloretako bihurtu nuen. Ez zegoen askorik aukeratzeko, eta, bitxia bada ere, serie hartako koadrorik interesgarriena izan zen». Blakek Cryla izeneko pintura akriliko batekin egin zuen koadroa, batez ere olioarekin lan egiten zuen garai batean. Horrekin lan egiteko arrazoia zen, beharbada, material sintetiko horrek (kolore distiratsuek ditu eta) egokiagoa zirudielako horrelako gaietarako eta artistaren estilorik «ilustratiboenarako». Era berean, Cryla erabili zuen *Bo Diddley* (1963) eta *The 1962 Beatles* (1963-1968) koadroetan.

10 Hockney 1937an jaio zen eta ikasketak artistikoak Royal College of Art eskolan egin zituen, 1959 eta 1962 artean. Orduan ezagutu zuen Blake, zeinen obra oso gustukoa baitzuen. Blakek Hockneyri eman zion koadroa, artista gaztearen *A Rake's Progress* (1961-1963) grabatu serie ezaguna biltzen zuen karpeta baten truke, baina mihisea gorde zuen harik eta guztiz amaituta zegoela erabaki zuen arte. Ordura arte, pop arteko atzera begirako eta erakusketa ugarietan erakutsi ahal izan zuen, fase desberdinetan. Hockneyk, azkenean, lana 2002an jaso zuenean, dohaintzan eman zion Londresko Tate Galleryri.

11 Chiswick Londresko mendebaldeko auzo bat da. Blake 1979an bueltatu zen hara, Wiltshire etxea saldu eta bere lehenengo emaztearengandik banatu ostean. Oraindik ere han bizi da, 1981ean eskuratutako etxe batean, Chrissy bigarren emaztearekin.

12 Blakek ez ditu Cliften pelikula guztiak ikusi. Gogoratzen duenez, ikusi zuen Cliften lehenengo pelikula *Hemendik etemiterata* (1953an estreinatutakoa) izan zen.

13 Ikus Rudd 2003, 10. eta 15.or.

14 Bosworth 1979, 298.-302. or. Jatorriz, azal gogorreko liburu gisa argitaratua: Harcourt Brace Jovanovich, Inc., 1978.

15 Bere belaunaldiko beste zine-izar batzuek egin zuten bezala, Cliftek ezkutatu egin zion publikoari bere joera homosexuala. Bosworthen biografia izan zen gai hori zabal-zabal landu zuen lehenengoetakoa, ordura arte gai tabua baitzen.



5. Peter Blake
David Hockneyren erretratua espainiar estiloko barrualde hollywoodiar batean, 1965ean hasitakoa
 Akrilikoa mihisean. 182,8 x 152,8 x 2,1 cm
 Tate, Londres



6. Peter Blake
 «Topaketa» edo «Izan dezazula egun on bat, Hockney jauna», 1981-1983
 Olioa mihisean. 97,8 x 123,8 cm
 Tate, Londres



7. Peter Blake
Oroitutako une bat Venicen, Kalifornia, 1981-1983
 Olioa mihisean. 79,4 x 105,4 cm
 Bilduma partikularra

zituenetik, bere sexualtasuna zabal-zabalik erakustea ohore-arazo bihurtu zuen, bizitzan zein artean—, Los Angelesen gay mundua bertatik bertara ezagutu ostean, Blakek pentsatu zuen Cliften erretratu bat egin zezakeela, eta, bertan, zeharka, aktorearen orientazio sexualaren enigma landu zezakeela¹⁶.

Nire koadroaren muina da bere arreba eta bera [Montgomery Clift] bikiak zirela. Eta urteak aurrera egin ahala, Montgomery gero eta guapoagoa bihurtzen hasi zen, eta arreba, berriz, normaltxo geratu zen. Eta bere alde homosexuala gailendu zitzaionean, arreba baino askoz ere guapoagoa izatera heldu zen. Horri buruz egiten du berba koadroak.

Liburuan, Bosworthek dio Clift eta haren arreba bikia, eta beste anaia bat, Brooks, eurak baino urte bi nagusiagoa, berdin-berdin hezi zituztela, eta unisex eran janzten zirela, gainera¹⁷. Koadroa egin eta hogei urtera, Blakeri ahaztu egin zaizkio xehetasun horiek, baina ziur dago mota horretako datuek eragina izango zutela koadroa pintatzeko hartu zuen erabakian eta pintatzeko moduan.

Londresera bueltatzeko hegaldian, Blakek Hodgkini iradoki zion bakoitzak hiru koadro pintatu behar zituela Los Angelesen bizitako esperientziekin, gero erakusketa bateratua egiteko¹⁸. Plana inoiz ez zen espero bezala bete. 1981eko hasieran, Londresko Tate Galleryk bere obraren atzera begirakoa egiteko gonbita egin zion. Inaugurazio eguna 1983ko otsailaren 9a zen, hori zen bere mugaeguna. Epe hori betetzeko ahalegina egin zuen, baina Hodgkinek koadroetako bat eta paper gaineko obra bat baino ezin izan zituen pintatu¹⁹. Blakeren hiru obrak gauzatze-fase desberdinetan jarri ziren ikusgai, eta hiruretatik landuena —«*Topaketa*», beste biak baino hilabete pare bat lehenago pintatzen hasitakoa— Tate galeriari saldu eta amaitu barik eman zitzaion (hala uste du Blakek, behintzat). Gustave Courbeten «*Topaketa*» edo «*Egun on, Courbet jauna*» lanaren parodia gisa sortu zuen, eta Los Angeleseko hiru koadroetatik ludikoena da hau. Gainera, berau da Blakek, Hodgkinekin batera, Hockneyri egin zion bisitaren arrazoiak ondoen islatzen dituen lana. Hockneyk bere egiten du Courbetek bere buruarentzat gorde zuen maisu papera, eta Hodgkin, malezia apur batekin, zerbitzari umil eta otzanaren paperean agertzen da. Blakek Hockneyren parekoa balitz bezala irudikatzen du bere burua, baina, hala ere, bisita egiten dio Hockneyri, omenaldia egiteko. Gaur honelaxe gogoratzen du hori:

Itzulerako bidaietan, esan nion Howardi: «zergatik ez dugu erakusketa bat egiten, zeinetan bakoitzak hiru koadro erakutsiko dituen, han bizitako esperientziekin? Eta erakusketa edonon dela ere —Waddingtonen edo edonon—, Kaliforniako galeria bat irudikatuko genuke. Modu horretan, hiru aldeko espazio bat sortuko genuke, aurreko aldean irekitakoa, zoru faltukoa eta sabai irekikoa, eta horma bakoitzean zure eta nire koadro bana egongo lirarteke». Eta, beharbada, zorua zuriz margotu genezakeen, eta gainean hondarra bota, argi distiratsu hori lortzeko, hain Los Angelesekoa den sentsazio hori lortzeko. Zenbait marrazki egin zituen eta argazki batzuk hartu ere bai, «*Izan dezazula egun on bat, Hockney jauna*» lanerako. Eta bigarren koadroa: Howarden eta nik gertakari bat ikusi genuen, Venice Beachetik paseatzen gindoazela. Aparkaleku erraldoi bat zegoen L.A. Louver galeriaren aurrean,

16 Blakek portaera homosexualak sumatu zituen Londresko artearen munduan, eta gogoan dauka, modu horretan, homosexualtasunaren gaiarekiko interesa areagotu egin zitzaioela. Hirurogeiko hamarkadan erakusketaren bat egin zuen Robert Fraserren galerian; haren jokaera bitxiak argi uzten zuen zeintzuk ziren bere joera sexualak, gizonen arteko harreman homosexualak 1967an legalizatu baino dezente lehenago ere. 1979an, Los Angeles bisitatu zuen garaian, Londresko beste arte-merkatari baten adiskide egin zen. Gizon hura bere lehenengo emaztearengandik banatuta zegoen, ez zeukan konpromisorik —geroago berriro ezkonduko zen— eta bere alde homosexuala aztertzen ari zen. Arte-merkatari horri esker, eta artista heterosexualekin batera (Lucian Freud, Frank Auerbach, Eduardo Paolozzi, William Coldstream eta R. B. Kitaj, besteak beste), Blakek dio gay giroko tabernetara joan ohi zela —han, batzuetan, beste gizon batzuekin batera egiten zuen dantza, mozkortuta— eta gau horietako batzuetan, afaldu ostean, zinemaren proiektatutako boxeo konbateak ikusten zituztela goizaldean. Londresko arte munduaren alde horri buruzko kronika soziala oraindik ere idazteke dago, baina, beharbada, ez da komeni gai hori ukitzea, protagonista guztiak bizirik dauden artean.

17 Bosworthen arabera, «Monty eta besteak hiruki gisa hezi zituzten, ile-orratzera ('Dutchboy bobs'), arropa, heziketa eta erantzukizun bereberkin, adina eta sexua kontuan izan gabe. Sunny [ama] guztiz ziur zegoen modu justu eta inpartzialean jokatzeko zuela [...]». Bosworth 1979, 19. or.

18 Rudd 2003, 79. or. Rudd oker dago esaterakoan Blakek Cliften autobiografia irakurri berri zuela. Liburu hori ez da existitzen.

19 Ikus Londres 1983, 104.-105. or., «Californian Pictures» izenarekin aipatuta. Blakeren hiru koadroak honako zenbakiekin jarri ziren ikusgai: 104 (*Montgomery Clift*), 105 («*The Meeting*») eta 106 (*A Remembered Moment*). Hodgkinek honakoak jarri zituen: 104a, *David's Swimming Pool* (1982, teknika mistoa paperean); 105a, *David Hockney in Hollywood* (1982, olio ahoalean).

eta aparkalekuan zehar begiratzeko zenuen. Egunaren amaieran izan zen, etxerantz bueltatzen ari den jendea eta afaltzera irteten ari den jendea topatzen duzun unean; eta neska bat bakar-bakarrik zegoen, hamalau urte inguru izango zituen, eta erditik ari zen patinatzen, patin handi horietako batzuekin. Soineko beltz luzea zeraman, amarena zirudien, ia lurreraino heltzen zitzaion soineko beltza. Eta jauziak egiten zituen, lurretik irristaka, ametsetan. Irudi zoragarria zen. Eta hori izan zen *Oroitutako une bat Venicen, Kalifornia* lanaren hasia.

Eta, urtebete geroago, argazki gehiago hartzera bueltatu nintzenean –Venice Beacheko ia guztiak barne–, aparkalekuaren bila joan nintzenean, ezin nuen ulertu zer ari zen gertatzen. Gertatu zena da lehen aldian itsasora begira ikusi nuela, eta, bueltatzean, eraikitzen ari ziren eraikuntza batek orubearen erdia betetzen zuela. Beraz, oraingoan, egoerari buelta eman nion, eta orain aparkalekuari begira zaude, itsasoari bizkarra emanez eta eraikitzen ari diren eraikina parean duzula. Horrek denboraren joanarekin eta esperientziarekin zeukan harremana. Urtebete geroago, eraikina eraikitzen ari ziren. Koadroak zerikusia dauka amets egiten ari den neskarekin eta Los Angeles hiriarri eragiten zioten aldaketekin, hiriaren garapenarekin eta horrela. Eta gero, jakina, neskatoa [nire alaba] Daisy izan zen; Daisyren argazkiak erabili nituen, jakina.

Lehenengo bisitatik denbora gutxira, Chrissy [Wilson] ezagutu nuen. Bueltatzea erabaki nuen [...]. Nire urtebetzearen egunean bidaiatu genuen [1981eko ekainaren 25ean]. Uste dut txartela erreserbatuta neukala, Chrissy ezagutu nuenean. Ni bisitatzeko hasi, eta, gero, nirekin bizitzera etorri zen. Eta orduan esan nion: «Nahi duzu nirekin joan Los Angelesera?». Beraz, kontua are bitxiagoa zen orain, eta horrelaxe joan nintzen Los Angelesera Chrissyrenkin. Badakizu: «ondo bizitzea da mendekurik onena».

Blakek aitortzen du *David Hockneyren erretratua espainiar estiloko barrualde hollywoodiar batean* lana buruan zebilkola 1979an, Hockney bisitatzera joan zenean. Eta dio erretratu hark Los Angelesen antzeko estiloko koadro gehiago egiteko erabakia berretsi ziola. Antzekotasunak ez daude soilik pintura aplikatzeko moduan eta teknikan, baizik eta argazki-iturrien erabilera ere²⁰. Hala ere, artistak berak dioenez, bere karrera osoan aplikatutako praktika piktorikoaren ezaugarriak dira. Cliften koadroa pintatzeko, aktorea oporretan Paestumen zegoeneko zuri-beltzeko argazki lauso batean oinarritu zen. Paestum «Napoli hegoaldeko antzinako kolonia greziarra zen», eta Bosworthen biografian dago jasota [8. ir.]²¹. Argazki-kopiak hain eskaintzen ditu datu gutxi, Blakek xehetasun guztiak asmatu behar izan zituen eta, gainera, iturriaren giro lauso eta definitu gabea islatu zuen. Clifti buruz argitaratu berri ziren beste zenbait liburu eskuratu zituen²², bai eta Hollywood Boulevardeko zineman espezializatutako dendetan aurkitutako zuri-beltzeko publizitate-argazki batzuk ere²³, baina, azkenean, jatorrizko argazkiari lotu zitzaion. Konposizioa transferitu zuen, orrialdea (liburutik aterea) mihisean proiektatuz, epidiaskopio viktoriar baten laguntzarekin eta proiektatutako irudiaren gainean marratuz. Koadroaren eta serie honetako beste mihiseen neurriak guztiz bat zetozen urre koloreko marko zahar eta hondatu baten neurriekin, amaitutako obraren itxura «akademikoa» handitzeko asmoarekin, hemeretzigarren mendeko Areto handi haietako girokoa balira bezala. Konposizioan egindako aldaketa bakarrak koadroa markoan sartzeko helburuarekin egin ziren eta, zehatzago esanda, formatu obalaturan sartzeko helburuarekin. Sarritan forma obalatu («bineta» erakoa, esan dezagun) zuten argazki viktoriarrekiko asoziazioa berretsi egiten da koadroaren zati

20 Hockneyren erretratuaren atzealdea, eskaileran posatzen ari den mutil guapo eta dotore baten irudiarekin, Hockneyk berak eskuz margotutako 190,5 x 129,5 cm-ko argazki erreproduzio handi batean oinarritu zen. Hemen dago erreproduzita: Londres 1999, 16. or.

21 Zuri-beltzeko argazkien atalean erreproduzitutakoa, 1979an argitaratutako paper-azalezko edizio 212. eta 213. orrialdeetan. Bosworth 1979, 193. or., lerro gutxi batzuk baino ez dizkio eskaintzen 1950eko otsailko egun batean egindako ibilaldi horri (Kevin McCarthy aktorearekin eta haren emaztearekin batera egindako ibilaldia): «Egun osoa pasatu zuten Paestumen: han pasatu zuten arratsaldean, haize gogorra zebilen aurrietan, eta Monty zapu bat jantzi zuen burua, ijito bat balitz bezala. Eta Kevinek argazkia atera zion, zutabe handi haietako baten aurrean pozez dantzan ari zen bitartean».

22 Kass 1979, inarri-oinarrian, fotogramen liburu bat da; Laguardia 1977.

23 Erosi zituen lehenengo publizitate argazkiak ahaztuta utzi zituen Tony Curtis zine-izarraren etxera egindako bisita batean, eta ez zituen sekula berreskuratu. Hirian pasatu zuen hurrengo denboraldian gehiago erosi zituen, baina, egia esan, ordurako ez zituen behar.



© Babestutako materiala

8. Kevin McCarthy
Montgomery Clifti egindako argazkia



9. Peter Blake
Montgomery Clift, 1987
 Postalak eta esmaltea egurrean. 57,8 x 37,5 cm
 Bilduma partikularra



10. Peter Blake
Idoloen I, 1991
 Serigrafia paperean. 72,1 x 50,6 cm (irudia); 103 x 77,5 cm (orria)
 95eko edizioa / Waddington Graphics
 Alan Cristea Gallery-ko eskainia, Londres

handi batean erabilitako tonu sepiekin. Soilik urdin garbiko kolorea duen zeruan eta aktorearen aurpegi gorrian erabili ditu artistak kolore distiratsuagoak».

Urte batzuk geroago, Blakek aktorearen irudira jo zuen beste obra batzuetan, bereziki 1987ko *Montgomery Clift* lanean [9. ir.]²⁴. Koadro horretan, 1959ko pop arteko bere obren eran itsatsitako postalak erabiltzen ditu; Clift pertsonaia gustukoenen erretikularen parte gisa ere agertzen da, denak ere, 1991ko *Alfabeto* serieko *Idoloen I* [10. ir.] serigrafian erretratatu. Artistaren arabera, Cliften berragerpen horiek ez dute esan nahi heroia gurtzen ari denik, baizik eta berragerpenok famaren ikonografiaren parte direla:

Ikono bat da, sinbolo bat, Elvis ikono bat den bezala, nire rock izarrik gustukoena ez bada ere. Clift ikono bat da, ez Elvis bezainbeste; gehiago da kultuko objektua, nik uste. Nire ustez, maila horretan dago, gutxi gorabehera. Nire erreperatorioko konpainian sartu da, nire irudietan erabili ohi ditudan pertsona guztiekin batera. Jende bereziz betetako errepertorio bat daukat, eta burura datozkidan idoloen errepertorio bat ere badago: Elvis eta Marilyn goi-goian egongo lirateke, eta, gero, Montgomery Clift eta Kim Novak eta James Dean eta, beharbada, Marlon Brando aurkituko genituzke.

Beharbada, «Monty» berriro ere agertuko da Blakeren beste koadro batzuetan, baina *Montgomery Clift bikia izan zen* lanari esker, aktorea beti geratuko zaigu gizon iheskor, hauskor, zoro eta anbiguo gisa, beti bizirik gure imajinarioan.

²⁴ Obra hori Japonian egindako erakusketa indibidual baterako sortu zuen. Erakusketari, artistak berak jarri zion izenburua: *Peter Blake: Déjà vu* (Tokyo, Nishimura Gallery, 1988ko maiatzaren 9tik 31ra). Blakek erabaki zuen bere lehenengo aroko obra garrantzitsuenetako batzuen bertsio berriak pintatuko zituela, edo, bestela, obra berriak sortuko zituela, bere lehenagoko estiloetan. Katalogoaren hitzaurrean, Blakek jabetzearen moda berria aipatu zuen, hauxe idatzita: «hobe da zeure burua plagiatzea, inork zu plagiatzea baino». *Collage* fotografikoaren eta esmalteen teknikarekin Blakek jende ospetsuari egindako hasierako erretratu gehienak emakumezko aktore ospetsuei buruzkoak izan ziren, eta ez gizonezkoiei egindakoak. *Montgomery Clift* 1987an dago eginda, berrogeita hamarreko hamarkadako beste ikono bi izandako Elvis Presley eta James Deanen erretratuak lantzen ari zenean, eta guztiz berria den obra bat ematen du, aurreko obra baten bertsioa izan beharrean.

BIBLIOGRAFIA

Bosworth 1979

Patricia Bosworth. *Montgomery Clift : a biography*. New York : Bantam Books, 1979.

Kass 1979

Judith M. Kass. *The films of Montgomery Clift*. Secaucus, N.J. : Citadel Press, 1979 (Brooks Cliften hitzaurrea).

Laguardia 1977

Robert Laguardia. *Monty : a biography of Montgomery Clift*. New York : Avon Books, 1977.

Londres 1983

Peter Blake. [Erak. kat.]. London : Tate Gallery, 1983.

Londres 1999

Cabinet of curiosities from the collection of Peter Blake. [Erak. kat.]. London : Morley Gallery, 1999.

Londres 2003

Sir Peter Blake : Commercial Art 1960-2003. [Erak. kat.]. London : University of the Arts, Arts Gallery, 2003.

Rudd 2003

Natalie Rudd. *P. B.* London : Tate, 2003.

Usherwood 1986

Nicholas Usherwood. *Commercial art by Peter Blake*. [Erak. liburuxka]. Brentford, Middlesex : Watermans Art Centre, 1986.